

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteazkena, 2012ko martxoaren 28a. IX. urtea. 2.384. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Beti ikasten elkarteak hartu du Tolosako esperientzia eskolaren ardura

Orain arte Mugabek kudeatu du belaunaldien arteko lankidetzeta sustatzeko egitasmoa; 'Etxean Ondo' ere jarriko dute martxan 05



Bi ikaslek beren esperientziaren berri eman zuten, agerraldian. I. URKIZU



HITZA

→ **Afizionatuak pedalkadak ematen hasi dira.** Abian da txirindularien lasterketa garaia. Eskualdeetako afizionatu mailako zenbait entrenatzaile eta txirindularik, besteak beste, taldea bilatzea geroz eta zailagoa dela diote. Aurten Goierri, Andoain eta Tolosaldeko eskolek taldea osatu dute: Gopar-Ikolan (irudian). 02-3

Asteasuko Pello Errotako ikasleek bideo bat bidali nahi diote Realari

Idiazabalgo Errealaren Lagunek egindako bideoa internet bidez zabaltzea izan da ikasleen egitekoa; sarea aztertu dute lan horrekin 07

Espainiako bandera jarriko dute Zizurkilgo udaletxean, bihar

Ikurra jartzeko epaia iritsi zaie eta udalbatzak erabaki honen aurkako mozioa onartu badu ere, «inposaketa bidez» jarriko dutela esan du udalak 04

Hondakinen lantaldearekin «itun sozial zabala» lortu nahi du udalak

Tolosako eragileek osatuko dute taldea lehen fasean; EAJ alderdiak, bere aldetik, atez ateko sistema «atzera pausoa» dela uste du

MARTXOAK 29 GREBA OROKORRA

Bihar, Martxoak 29 ez da papereko alerik kaleratuko. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariko lantaldeak bat egiten du sindikatuek martxoaren 29rako deitutako greba orokorrekin.

tolosaldea.hitza.info webgunean grebarekin zerikusia duten albisteak irakurri ahal izango dira.

GAUR

Asteazkena - martxoak 28 - 19:00etan

tolosaldea.hitza.info
webgunean

ZUZENKO EMANALDIA

Gaia:

Atez ateko hondakin bilketa

Irurako ikastolatik
Bilduko Imanol Azpiroz eta EAJko Karlos Ormazabal
mahai inguruan

**FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK**
902 402 900
www.funerariavascongada.com



Hasi da txirrindulari denboraldia; afizonatu mailako eskualdeko hainbat txirrindularik ilusioz ekin diote, baina gero eta zailagoa da taldea bilatzea, lasterketak antolatzea eta are gehiago profesioaletara iristea.

Berriz pedalei eragiten hasita

Joxemi Saizar

Beti esan izan da kirolik gogorrenetakoa dela txirrindularitza, eta harrobiko eskolen eta profesionalen ospearen arteko etapan daudenei egin die tartea HITZAK; hau da, eskualdeko afizonatu mailako txirrindulariei. Entrenatzaile lanetan ari direnen iritziak ere jaso ditugu.

Tolosan Oria, eta Villabonan Irrintzi txirrindulari eskolak daude eta horietan dago kirol gogor honetan lehen pausoak emateko harrobia. Urteak daramatzate lan izugarria egiten eskualdeko haur eta gazteekin. Benjamin, alebin, infantil eta jubenil mailetako taldeak dituzte, baina behin 18 urtetara iritsitakoan zein da txirrindulari gazte hauen irtenbidea? Gero eta zailagoa da txirrindulari talde bat osatzea, are gehiago bizi dugu krisi ekonomikoarekin. Horrelako talde baten gastuei aurre egiteko enpresa laguntzaileak aurkitzea ez da lan samurra. Aurten talde berria osatu dute Goierriko Loinaz eta Ordizia, Andoingo eta Tolosaldeko Oria eskolen artean: Gopar- Iko-lan Lanaldi izenekoa.

Entrenatzaile taldean Iñigo Aseginolaza tolosarra eta Eneko Gurrutxaga anoetarra daude, eta taldeko 16 txirrindularien artean Ander Altuna zizurkildarra, Aitor Landa tolosarra, Aitor Ocampos ibartarra eta Xabier Iriarte ibartarra daude.

Entrenatzaile lanetan

Txirrindua kakotik zintzilikatutakoan, ziklista askok gazteagoei erakusten lan egitea aukeratzten dute mundu horretan jarraitu ahal izateko, talderen batean sartuz. Horixe da Aseginolaza eta Gurrutxagaren kasua. «Orain arte Belca taldean aritu gara, baina diru faltagatik ezin genuen jarraitu. Horregatik elkartu gara



Gopar-Ikolan Lanaldi txirrindulari taldea: goian, ezkerretik hasita 2.a Iñigo Aseginolaza, 3.a Aitor Ocampos eta 4.a Aitor Landa; behean ezkerretik hasita 7.a Ander Altuna eta azkena, Eneko Gurrutxaga; Xabier Iriarte falta da. HITZA

lau eskola, eta Goierriko enpresa batzuen laguntzari esker taldea osatu dugu», adierazi du Aseginolazak. Txirrindulari gehienak «oso gazteak» direla azpimarratu dute bi entrenatzaileek. Jubeniletan ondo ibilitako jendearrekin «talde polita» osatu dutela uste du Gurrutxagak.

Helduenak (Ocampos eta Iriarte), ikasketak eta lana direla medio, oraindik ez dira hasi lehiatzen; apirilean edo hasiko omen dira. Taldearen entrenamenduei buruz, Eguberrietatik lehiaketa hasi arte larunbatetan lauzpabost orduko saioak egin dituztela azaldu dute. Lasterketak hasi direnetik, txirrindulari bakoitza bere kontura entrenatzen da, Caja Rural taldearen laguntzaz Iruñeako osasun etxearen taulak jarraituz. «Denboraldiko helburu bezala, Bidasoako Itzulian txukun aritu eta udan Lehendakari Txapelketan muturra sartu nahiko genuke», diote. Taldeko Asier Unanue eta Igor Romero txirrindulariak nabarmendu dituzte be-

reziki bi entrenatzaileek orain arte egindako probetan.

Beteranoak eta gazteak

Xabier Iriarte da taldeko betaranoa eta ibilbide luzea egin du mundu honetan: kadeteetan hasi zen Orian, eta afizonatuetako lehen bi urte arte bertan aritu zen; Bidelan taldean beste hiru urte egin zituen; urtebete bizikleta

Aurten Gopar-Ikolan talde berria osatu dute Goierri, Andoain eta Tolosaldeko eskolek

Denboraldia otsailetik iraila arte luzatzen da, baina azaroan hasten dira entrenatzen

Lehendakari eta Euskaldun dira txapelketa nagusiak

utzita egon zen; eta, lanean ari zela, Belcan aritu zen berriz. Jubeniletan garaipen batzuk lortu zituen bakarka eta taldeka, eta afizonatuetan podiumeko postu batzuk eskuratu zituen. Mendian ibiltzen da gustuen. «Aurten lasai hartuko dut eta bizikletan ondo pasatzea eta gazteei laguntzea izango dira nire helburuak. Udan zerbitu gehiago ibiltzeko aukera izango dut», azaldu du. Profesio-naletara jauzi egitea «ezinezkoa» dela dio: «Txirrindularitza kirol gogorra da eta gogoia eta ilusioa izanez gero ibil daiteke eta balio duena aurrera ateratzen da, bai-

na balio egin behar da, eta hala ere, askotan, oso zaila da».

Aitor Ocamposek ere ibilbide luzea egin du txirrindularitzan, profesionalekin kontinental mailan arituz iritsiz Orbea taldean. Oriako eskolan hazi eta jubeniletan Euskal Herriko txapelketa izan zen. Espainiakoan hirugarren egin zuen eta Iruñeako Itzulia ere irabazi zuen. Afizonatuetan bi urte egin ditu Naturgas taldean (Euskaltelen filiala) eta Arabako Hiru Eguna irabazi zituen, horrela Orbearekin Empordako Itzulian parte hartzeko aukera lortuz. Lehendakari txapelketan hirugarren egin zuen. Lesioen eragina ere jasan du, iaz proba batean saihesta hezurra hautsi eta hilabete batzuk lehiatu gabe pasatu behar izan baitzuten. «Aurten ikasketak bukatu nahi ditut eta txirrindularitzari ezingo diot denbora asko eskaini, horregatik denboraldi osoa ezingo dut egin. Ari naiz entrenatzen, baina apirilaren erdi arte ez naiz hasiko lehiatzen. Taldeko gazteei laguntzea eta nire burua berriro aurkitzea espero dut», adierazi du ibartarrak. Aldapatxoetan dabil ondoen eta «dieta jarraitzea» egiten omen zaio gogorrena.

Ander Altunak 11. denboraldia beteko du aurten bizikletaren gainean, benjaminetan hasi baitzen Irrintzi eskolan. Han bost urte egin ondoren Beasaingo Loinazten eta Ordizian bina urte egin zituen, eta iaz Zarauzko talde batean aritu zen, batez ere, pista egiten. Emaitzarik onenak xistean lortu ditu: Euskadiko txapelketa, 2.a Gipuzkoan, 4.a Espainian, Bordeleko premundialean ira-

bazle, Mallorcan 3.a... Orain Madrilen ari da ikasten eta asteburuetan etortzen da probetara. Aurten pistan baino gehiago errepidean ariko da. Neguan gimnasioan entrenatzen aritu ondoren, orain astean hamar bat ordu entrenatzen ditu bizikletan (asteazken eta ostegunetan fuertena, astelehena eta ostiralean suabeago eta asteartean atsedena hartuz). «Hasierako probetan eskas samar ibili naiz, bizikletan arazo batzuk izan ditudalako, baina taldean lagundu eta ahal dudan ondoren ibiltzea espero dut», esan du.

Aitor Landa ere Oriako eskolatik dator, kadeteetan hasi zen, eta lehen urtea du afizonatuetan. Terreno guztietan defenditzen da «txukun xamar, ezertan bereiztu gabe». «Gazte asko gaude taldean eta ikastea eta erritmoa hartzen joatea dira aurtengo helburuak gehienontzat. Egunero entrenatu behar da horretarako. Dietak jarraitzea eta parrandarik egin ahal ez izatea niretzat gogorrena», dio tolosarrak.

Eskualdekoak Bidelanen

Bidelan taldean eskualdeko bi ordezkari ere badira: zuzendaritza taldean ari den Iñaki Murua altzotarra (ziklista profesional ohia) eta Unai Artola txirrindulari amasarra. Taldean, errepidean baino, «etxeko lanak» egiten ditu altzotarrak: bidaia prestatu, materialaz eta arropaz arduratu, koordinazioa... «Taldea polita osatu dugu, txirrindulari gehienak gipuzkoarrak dira, gainera. Ondo hasi gara, Aiztondo klasikan eta. Orain hobetuz joan behar da», dio. Mutli hauen urteko martxa azaldu digu: irailaren edo urri hasieran bukatu denboraldia eta hilabeteko oporrak dituzte, azaroan prestakuntza orokorrekin hasten dira (mendia, frontenis), abenduan gimnasioan eta bizikletan eta urtarrilean gehituz doaz bizikleta orduak eta otsailan denboraldia hasten dute. Dedi-kazio osoa duten txirrindulariek 20-25.000 kilometro egiten bukatzen omen dute urtea. «Txirrindulariek bi jauzi handi dituzte: lehena unibertsitatean hasten direnean eta bestea elite mailara pasatzen direnean. Orduan erdieki baino gehiagok utzi egiten dute. Horraino iristen direnek zalelasuna badute eta beste modu batera jarraitzen dute bizikletan ibiltzen, ez dute erabat uzten», azaldu du Muruak.

Unai Artola Villabonako Irrintzi taldean hasi zen infantiletan eta kadeteetan, Goierriko Tejas

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Garmendia taldean, jubeniletan Caja Ruralen eta iaz afizionatuetan Belcan aritu zen. Jubeniletan Debako karrera irabazi zuen eta Gipuzkoako Itzulian 4.a gelditu zen. «Iaz, afizionatuko lehen urtea izanda ikastea tokatu zitzaidan eta aurten zerbait hobetzea eta gehiago egitea espero dut», dio. Mendiari dabil gustuen pisu aldetik arina delako eta badaki profesionaletara igotzea zaila dela bere anaia Ugaitz ere atetean gelditu delako.

**Andoitz Azurmendi**

- **Herria.** Leitzua
- **Adina.** 20 urte
- **Taldea.** Reyno de Navarra

Asteasuara Baque taldean

Bizkaiko Baque taldean Odei Gil asteasuara ari da aurten korritzen. Irrintzi taldean hasi zen 6 urterekin («ni baino hiru urte zaharrragoekin korritzen»), jubeniletan Irungo taldean eta iaz afizionatuetan Slece-Metta taldean, batez ere pistan aritu zen. «Beraz, aurten lehen urtea bezala izango da errepidean eta ikasten joan beharko dut», dio. Abiadura eta fondoan ondo moldatzen da. Infantiletan proba asko irabazi zituen, kadeteetan Tolosako eta Eibarko lasterketak eta Gipuzkoako txapelketa, jubeniletan Gipuzkoako Itzulian lider ibili zen eta pistan Valladolideko Promozio Trofeoa irabazi zuen eta Euskadiko Txapelketan bi urte eta zilarra lortu zituen. Ez da curriculum txarra horrelako gazte batentzat.

Leitzarra Reyno de Navarran

Azkenik, **Andoitz Azurmendi** leitzarra Reyno de Navarra taldean ari da korritzen aurten, 13 urte bikizikleta gainean konpetitzen egin ondoren. Herriko Aizan taldean eman zituen lehen pedalkadak eta taldea desagertu zenean Bera-

ko Urtxintxa taldean eta Caja Ruralen aritu zen. Hau da 3. urte afizionatu gisa. Infantiletan Nafarroako mendiko txapelketa izan zen, kadeteetan bi karrera irabazi zituen eta jubeniletan hiru. Taldea Iruñeakoa denez, bere kontura edo lagun zikloturistekin entrenatu behar izaten du. Mendiari hobeto moldatzen omen da zelailan baino. «Lasterketa bakarra egin dut aurten hazizurriak eduki ditudalako, baina aurrean ibiltzea da nire helburua», dio.

Lehiarako probak

Lasterketak antolatzea ere ez da batera erraza, gero eta arazo handiagoak dituzten antolatzaileek dirua lortzeko, aurten profesionalen Euskadiko Itzulia eta Donostiako Klasikan gertatu bezala. Afizionatu mailan, zer esanik ez. Bi txapelketa nagusi izaten dira Euskal Herrian otsailaren bukaeratik irailaren bukaerara: lehendakari txapelketa (23 urte azpiko-

**Ander Altuna**

- **Herria.** Zizurkil
- **Adina.** 20 urte
- **Taldea.** Gopar-Ikolan

**Unai Artola**


- **Herria.** Villabona
- **Adina.** 20 urte
- **Taldea.** Bidelan

**Odei Gil**

- **Herria.** Asteasu
- **Adina.** 20 urte
- **Taldea.** Baque

**Xabier Iriarte**

- **Herria.** Ibarra
- **Adina.** 26 urte
- **Taldea.** Gopar-Ikolan

**Aitor Landa**

- **Herria.** Tolosa
- **Adina.** 19 urte
- **Taldea.** Gopar-Ikolan

**Aitor Ocampos**

- **Herria.** Ibarra
- **Adina.** 23 urte
- **Taldea.** Gopar-Ikolan

ak) eta Euskaldun Trofeoa (23 urte azpikoak). Lehendakari Txapelketan 27 proba izango dira aurtean, tartean jada Lizartzan jokatu dena eta sanjoanetan Tolosan egingo dena eta Euskaldun Trofe-

oan beste 26 lasterketa, tartean san Ignacio egunean Altzon egingo dena. Hortaz aparte 6 klasika eta 3 itzuli izaten dira, gonbidapenarekin eta Euskal Herriko kanpoko txirindulariekin. Aiztondo-

ko klasika jokatu da jada. Bizikleta denboraldi berri honen hasieran, antolatzaileei, entrenatzaileei eta txirindulariei kirol gogor honetan animoa eta zorte ona izatea opa die HITZAK.

**harpidedun izateak badu saria****zozketa****1 Ostatu Hernalde Jatetxea**

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

Hernalde
Tel.: 943-65 24 96

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

**2 ERROMERIA-Udaberri Dantzari Taldea**

Bi lagunentzako txartela

Martxoak 31 - Larunbata
Tolosako Zerkausian

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

**3 Euskal Eskola Publikoaren XXI. jaia**

Bi elastiko

www.ehige.org/jaia2012/

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

**4 EUREKA! Zientzia museoa**

Bi lagunentzat bina sarrera

Mikeletegi, 43-45
Donostia
Tel.: 943 012 478

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **54**

**5 Lagun Aro GBC**

Sarrera pareta



Apirilak 8 igandea
12:30ean Donostiako Ilunben

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **55**

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetan asteazkenean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

Udalak hondakinen inguruko lantaldea jarriko du abian

Birziklapenaren aldeko «itun sozial zabala» lortu nahi dutela esan du Ibai Iriarte Tolosako alkateak

Imanol Garcia Landa

Hiri hondakinen inguruko lantaldea martxan jarriko du Tolosako Udalak. Hasieran lantaldean eragileek parte hartuko dute, eta, aurrera begira, herritarrekin lanke- ta egitea da asmoa. Horrela, Aste Santutik uda bitarte, hainbat tekniko eta aditu izango dira Tolosan, hiri hondakinen eta hauek jasotzeko sistemen inguruko informazio emateko. Egitasmoaren aurkezpena Ibai Iriarte alkateak, Hasier De los Rios Ingurumen zinegotziak eta Iñigo Muñoz ingurumen teknikariak egin dute.

Lantaldean parte hartzeko eragileak identifikatu ditu udalak. Horrela, alderdi politikoak, sindikatuak, auzo elkarteak, merkata-



Hasier De los Rios, Ibai Iriarte eta Iñigo Muñoz, agerraldian. IGL

ritza eta ostalaritza sektorekoak, enpresak eta talde ekologistak izango dira informazio saio horietara joango direnak. Beste norbaitek parte hartzea nahi badu atek irekita izango direla azaldu du udalak. Bestalde, saio horietan jasotako informazioa zabalduko duela gaineratu du.

Iriartek azaldu duenez, urtarri-laren 31ko osoko bilkuran adostu-takoari erantzuna eman zaiola azaldu du. «Lantaldeak Tolosako

gizarte eragileen zein herritarren bilgune izan nahi du», esan du alkateak, «guztiok hondakinen kudeaketari buruzko informazio teknikoak jaso eta elkar trukatzeko». Lantaldeak «modu iraunkor-rean, parte hartze prozesu ireki eta zabal baten erdigunea» izan behar duela gaineratu du.

Prozesu horren bidez birzikla-penaren aldeko «itun sozial zabala» lortu nahi dutela esan du Iriar- tek.

Egitarau oparoa izango da asteburuan, Tolosako areto eta kaleetan

I. Garcia Landa

Eskaintza zabala aurkituko dute kultura egarriz daudenek, aste- buruan, Tolosan. Izan ere, hainbat emanaldi izango dira, bai ka- lean, bai herriko aretoetan. Lei- dor aretoan, Ruper Ordorika musikaria, ostiralean, eta Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazo- ak, larunbatean, izango dira.

Bonberenean ere bi kontzertu izango dira entzungai: ostiralean, Chalwa Band & King Konsul, eta larunbatean, Xabier Montoia. Beste bi kontzertu izango dira lar- unbatean: Tolosako Musika Bandak Berdura plazan emango duena eta Tolosako Orfeoia Santa Klara elizan egingo duena. Az- kenik, Udaberrik Dantzari Txiki Eguna eta Erromeria Eguna anto- latatu ditu larunbaterako.

↓ Emanaldiak

MARTXOAK 30

- **Ruper Ordorika.** Leidor aretoan, 20:30ean.
- **Chalwa Band & King Konsul.** Bonberenean, 22:30ean.

MARTXOAK 31

- **Dantzari Txiki Eguna eta Erromeria Eguna.** Udaberrik antolatuta, egun guztian.
- **Pirritx, Porrotx eta Marimotots.** Leidor aretoan, 16:30ean.
- **Tolosako Musika Banda.** Berdura plazan, 19:00etan.
- **Tolosako Orfeoia.** Santa Klara elizan, 20:30ean.
- **Xabier Montoia.** Bonberenean, 22:30ean.

→ Laburrak

Aste biblikoa egiten ari dira Santa Maria parrokiak

ERLIJIOA > Abian da Tolosan aste biblikoa. *Jesusen ezagutza sakontzea* da gaia eta saioak ostirala arte izango dira, 19:30ean, Santa Maria parrokiako aretoan. Maria Jesus Amundarainek zuzenduko ditu saioak. Horrekin batera, erakus- keta jarri dute Bibliari buruz, parrokiak.

Hitzaldia, 'Bayoneta'ren azken zenbakia dela-eta

KULTURA > *Bayoneta* aldizka- riaren 11. alea aterako dute, gaur, eta horren harira, Aranburu udal liburategian, 20:30ean, Carlos Rilovak hitzaldia emango du. Bertan, 1812ko konstituzioaren jakinarazteak Euskal Herrian eta Tolosan izan zuen eragina- ren inguruan ariko da hizlaria solasaldian.

Txotxongilo tailerra eta antzezlanak, etzi Topic-en

KULTURA > Txotxongiloaren Egunaren harira, etzirako txo- txongilo tailerra antolatu dute, 17:30ean, Topic zentroan. 943 65 04 14 zenbakian aurretik izena emanez gero, sarrera doan da. Bestalde, Antzerkia- ren Eguna dela eta, ostiralean bertan eta Topic zentroko are- toan, Teatro Estudiok *El chico de la ultima fila* antzezlan- a emango du. Sarrerak zazpi euro balio du. Festa batekin bukatu- ko dute eguna.

Mendi irteera, 7 eta 12 urte bitartekoentzat

MENDIA > Alpino Uzturrek apiri- laren 1erako 7 eta 12 urte bitar- tekoentzat mendi irteera anto- latu du. Txangoa Opakua mendatean hasi eta Andoinen bukatuko da. Iraupena 4 ordu- koa da, eta luzera ia 13 kilome- trokoa. Informazio gehiagorako eta izena emateko: alpinouzturre@hotmail.com.

EAJ: «Atez atekoa ez da inolaz erakutsi eraginkorragoa denik»

I. Garcia Landa

Tolosako EAJ atez atekoa ezar- tzearen aurka azaldu da: «Siste- ma neurrigabea, norbanakoaren intimitate eskubidea erasotzen duena eta herritarrei eskatzen zaien sakrifizioaren aurrean, zalantzarik gabe askoz garestiagoa izateaz gain, ez delako inolaz era- kutsi eraginkorragoa denik».

Sistema horrek herriaren gar- bitasunean eta itxuran «eragin ezkorra» duela dio alderdi jeltza- leak. Atez atekoa «atzerako pauso» dela gaineratu du EAJK: «Etorki- zunak langileen lan baldintzak hobetzearen alde egitea eskatzen du, modernizazioa, automatiza-

zioa eta eraginkortasunaren alde egitea, berriro zabor poltsak es- kuz jasotzearen alde egitearen aurrean».

Birziklapena jendea «kontzien- tziatuz eta heziz» egin behar dela eta ez «inposaketa bidez» garbi du EAJK. Azken 10 urtetan egin den lanak «emaitza oso onak» eman dituela uste du eta horregatik «sistema hobetzearen aldeko apustua» egiten du, «bosgarren edukiontzia ezarri eta zikloa errausketaren bidez energia berri- rritagarriak sortuz, Europako herri aurreratuenen bidetik».

Bestetik, ez diote «gardentasu- nik eta demokraziarik» ikusten gai horren inguruko erabakiak

komunikabideetan argitaratze- ri, «udalari dagozkion organo es- kudundun eta legezkoetan alde- z aurretiko analisirik, eztabaida- rik eta erabakirik, egon ez dene- an».

EAJK uste du herritarrek dire- la «jarraitu beharreko bidea au- keratu behar dutenak», egunero- ko bizitzan zein etorkizunari be- gira, «zuzenean eragiten dien gaia izanik». Eztabaida «sano, se- rio eta manipulaziorik gabeko» baten ondoren, nolako zabor bil- keta sistema nahi duten erabaki- ko dutenak herritarrek izan dai- tezela eskatu du. «Ezbestekoa da parte hartze prozesu bat abia- raztea», gaineratu du EAJK.

Larrun

Harraparien bizia!
Apirilaren 9tik maiatzaren 4ra,
astelehenetik ostiralera.

Egunero irekia 09:30etik 11:30era
eta 14:00etatik 16:00etara



Animazio berriak urrik!

2012

www.rhune.com

Belaunaldien arteko lankidetzaz sustatuko du esperientzia eskolak

Datorren ikasturteetik aurrera, Beti Ikasten elkartearen ardura izango da Tolosako esperientzia eskola

Itzea Urkizu

Tolosako esperientzia eskolak ohi baino beranduago hasiko ditu aurten eskolak, eta belaunaldien arteko lankidetzaz sustatzea izango da bultzatuko dute egitasmoetako bat.

Ikasturte berria aurkeztearekin batera, eskola biziberritu nahi dutela azaldu zuen Mugabe elkarte arduradunak: «Jendea aktibo egotea nahi dugu, lehenengo ikasleak ikasle berriekin nahastuz». Mugabek kudeatuko duen azken ikasturtea izango da aurkeztu berri dutena, izan ere, Tolosako Beti Ikasten elkartearen ardura izango da aurrerantzean, esperientzia eskola.



Herenegun aurkeztu zuten Esperientzia eskolako ikasturte berria. I. URKIZU

Aurten zenbait berrikuntza eskainiko dituzte, eta belaunaldien artean etengabeko elkarlankidetzaz sustatu nahi dute, hasteko. Mugabeko arduradunak azaldu zuenez, lehenago Orion eta Azpeitian ere burutu dituzte halako jarduerak, eta Tolosarako bi jarduerak prestatu dituzte; Topic zentroan izango da bietako bat.

Era berean, adineko pertsonak bere etxetan duintasunez bizitzeko *Etxean Ondo* egitasmoa ere zabaltzeko nahi dute, eta baita adinekoak zaintzen dituztenei esperientzia eskolako atek zabaltzeko ere.

«Beren buruari denbora eskaini behar diote».

Aurkezpen ekitaldian esperientzia eskolako bi ikasleek beren bizipenak kontatu zituzten. Batek kalean esperientzia eskolaren kontua entzun, eta jakinminez izena eman zuela dio: «Gauza berria ikasi ditut, eta txikitzen baino gehiago gozatu dut». Beti Ikasten-eko arduraduna ere, pozik azaldu zen: «Erretiroa hartu eta gero oreka bilatu behar izaten da, eta hemen, gure adin bertsuko jendea ezagutu eta gauza berriak ikasten ditugun».

Txalburuak



Bioaniztasunetik
Jon Ander Galarraga
Biologoa

Animalia txiki hauek putzu batean ikusten ditugunean, burutzarrarekin eta isatsarekin, nor esan igel eta apoen kumetxoak direla? Animalieien izenak ipini zizkion lehen euskaldunak ere ez zituen «igelkume» edo «apotoxo» izenarekin bataiatu, izen propioa eman zien: txalburu edo zapaburuak. Ohartu zen, animaliatxo hauen burua erabat ezohikoa zela...

Nahiko animalia zelebreak ditugu zapaburuak. Beren gurasok airea arnasten duten arren, zapaburuak uretan arnasten dute. Gurasoek lau hanka dituzten arren, zapaburuak ez dute hankarik eta isats bateko igerilari trebeak dira. Arrautza likatsuetatik jaiotzen dira, talde handietan eta ia beti ur geldoko putzuetan. Jaiotzean belarjaleak diren arren, haragijale bihurtzen dira eta gosea denean, elkar jateraino iristen omen dira! Baina, zapaburuak ez dira uretan bizitzeko jaiotzen, zapaburuak ur er-

retzetan edo orbel azpian saltoka ibiltzeko jaiotzen dira, eta jaiotzean egun gutxira uretako zapaburu txikiak, lurreko izaki jauzilari izaten hasten dira. Lehenik, atzeko hankak agertzen dira, isatsa hasten den lekuan; gero, aurreko hanka bi ateratzen dira, lehenik bat eta gero bestea. Buruaren itxura borobila luzanga bihurtzen da eta igel baten forma hartzen du. Azkenik, isatsa poliki-poliki desagertu egiten zaio, hankak indartu egiten dira eta igel txiki bat ateratzen da putzutik.

Deskribatu dudan eraldaketa konplexu honen mekanismoa eta funtzionamentua ikertuko balitz, agian zenbait gaixotasuni aurre egiteko sekretuak ikusiko genituzke, ez baita broma isatsa hain modu perfektuan desagertzea eta ezerezetik lau hanka sortzea. Baina noski, nori interesantzen zaizkio zapaburuak? Nork ordaindu behar du zapaburuak ikertzeagatik? Ongi etorriak ikerketaren puntan dagoen Euskal Herrira!

Biologo garuna garatu genuenok ordea, zapaburu bat ikusita ez gara lasai gelditzen. Zergatik jaiotzen da zapaburu bat igel baten arrautzetatik? Zergatik ez da igeltxo txiki bat jaiotzen?

Kumeak eta helduak hain desberdinak izateak, gezurra badi-rudi ere, abantaila handiak ekar-tzen dizkie animaliei. Batetik, kumeen eta helduen elikadura oso desberdina da; zapaburuak putzuetako algak jaten ditu, ha-sieran behintzat, eta igelak in-tsektuak jaten ditu, beraz, jana-

riarengatik ez dago belaunaldien arteko lehiarik. Zapaburuak intsektuak jaten hasten den arte behintzat! Gizakiok ere zapaburu baten antzera jaioko bagina, gure gurasoek ez gintuzkete berrogei urtera arte mantendu beharko!

Gainera, kumeak eta helduak leku desberdinean bizi dira. Igel edo apo heldua lurterra den bitartean, bere zapaburutxoak ur-tarrak dira. Krudela dirudien arren, igel amak ez die kasurik egin behar bere kumetxoei jaiotzean, eta igel ar dotore baten bila joateko aukera du. Munduko amarik hoberenak zu eta ni bezalako ugaztunenak dira, zelako zortea daukagun!

Gaurtik aurrera zapaburuak beste begi batzuekin begiratuko diozue, esan behar da hainbat zapaburu mota daudela, apo edo igel mota bakoitzak bere zapaburutxoak baitu. Hala ere, oso trebea izan behar da zapaburu bat ikusi eta zein apo edo igel motarena den jakiteko, batez ere, jaiotze berriak diren zapaburuak.

Azkenik esan, gure zapaburu-txo maiteak, beste animalia askoren dietan oso ohikoak direla, izan ere, bigunak dira, proteina ugari dute, putzua apur bat lehortzen bazaie erraz harrapa daitezke, eta ziur zapore oso ona dutela.

Zapaburu, txalburu eta bestelako bizidunak gustuko badituzte, bisitatu www.bioaniztasunetik.com, Facebook edo Twitter-eko orria, edo idatzi lasai bioaniztasunetik@hotmail.com eta proposatu gai berriak.

ASTE HONETAKO ESKAINTZAK!

1 IDRA KOLTXOIAK Ibaiondo, 15
20271 IRURRA
Tel.: 943-69 16 77

BI BURUKO BISKOLASTIKO
70zm-ko neurrian
LEHEN PREZIOA: 70 €
DESKONTUA: %42
ORAIN PREZIOA: 42€

AURREZTU 28€

MARTXOAK 31ARTE

2 SHUYANA ESTETIKA: Eskolapietokoa Lorategiak, 3-1, A • TOLOSA
Tel.: 943-67 54 89
KOSMETIKA: Korreo, 1 • TOLOSA
Tel.: 943-67 14 68

AUTOBELTZARANTZEKO PACK-A:

Gorputzeko soliantea autobeltzarantzea (arina eta bizia)

LEHEN PREZIOA: 55,40 €
DESKONTUA: %25
ORAIN PREZIOA: 41,55€

3 TOLOSA INDOOR KARTING Arzabaltza Industrialdea,
20-37
TOLOSA
Tel.: 685 722 119
www.tolosaindoorkarting.com

ITZULIAREN BEREZKO PREZIOA: 10 minutu, 13€

HELDUENTZAKO ITZULIA 10€
UMEENTZAKO ITZULIA 6€

4 VILLABONA OPTIKA Kale Berria, 23
VILLABONA
Tel.: 943-11 18 40
www.villabonaoptika.com

'EMPORIO ARMANI' MARKAKO EGUZKITAKO BETAURREKOETAN

%20ko DESKONTUA

Moztu dagokion kupoia, **aurkeztu** dendan eta **gozatu** abantailaz

ESKAINTZAK!

✉ **Gutuna**

Burujabetzarako greba orokorra

Krisia gora eta krisia behera, urak harrotuta dabilta Bidasoa ibaiaren bi aldetan. Erreformak, murrizketak, erretreta edo erretiroaren muga gabeko atzeratzea, lanpostuak, pentsio murrizketak, prekarietatea, hipotekak, segurtasun eza, anketxeak, eta abar. Denetarik entzuten ari gara azken garaian.

Eta etorriko dena... auskalo! Baina gauza onik ez, ziur. Gaur egungo marko juridiko politikoa medio Madrilen eta Parisen erabakitzen dute gure etorkizuna eta horren ondorioz ateratzen gara kalera, hori aldatzeko atera behar gara kalera.

Euskal Herriko langileok gure etorkizuna erabakitzeke dugun eskubidea eskuratzeko, Euskal Herri osoko eremu sozioekonomikoan garatuko den, euskal lan harremanetarako esparrua aldarrikatu behar dugu. Eta ez hori bakarrik, kirol esparruan

egitura propioak behar ditugu; hezkuntza sistema propioak, Horretarako gaur egungo marko gairiditu beharra dago. Lan harremanetarako euskal esparrua ideia edo asmo bat izatetik errealitate gisa eraiki beharreko erronka da eta bide horretan martxoaren 29an jarriko dugu lehen harria.

Euskal Herriko eragile sozial, politikoa eta sindikalen indarrak behar ditugu Euskal Herriak aurrean duen erronka irabazteko. Ez Espainian Raxoi edo Frantzian Sarkozki dutelako, ez krisia iritsi delako bakarrik, Euskal Herriak eta euskal jendarteak behar duelako baizik. Madril eta Parisen egindako legeek ez diotelako gure herriaren beharrei erantzuten.

Gaur inoiz baino argiago dugu Euskal Herriak burujabetza behar duela. Ez bakarrik espainiar zein frantsesak ez garelako eta

izateko asmorik ere ez dugulako, gaur egun Euskal Herria krisitik atera ahal izateko tresnak ukatzen dizkigutelako baizik: lan harremanak zehazteko arautegi propioa eta Euskal Herriko lan kodea, adibidez.

Zeregin handia dugu oraindik Euskal Herrian eta tamalez gaur egun Espainia zein Frantses gobernuen araberrako erritmoan egiten dugu dantza. Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako langileak, batetik, eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiko langileak, bestetik.

Gure etorkizuna Madrilen eta Parisen erabaki ez dadin, Euskal Herriak lan harremanak arautuko dituen eremu propioaren alde, martxoaren 29an Hego Euskal Herriako greba orokorra! Euskal Herria kalera!

■ **Naroa Geresta eta Mikel Luloga.** Bai Euskal Herriari ekimeneko koordinatzaileak.

Irudia ◊ Bedaio



EMAKUMEEN AFARIA

Afari bikaina eta giro paregabea izan zen larunbat gauetan Bedaio. Heldu eta gazte, 75 emakume elkartu ziren Abaetxe jatetxean. Ar-tubi elkarteko kideek prestatu zituzten pintxoak dastatzeko aukera ere izan zen afaldu aurreko triki poteoan. Aurtengo ezustekoa, Ibar-rako sokatira taldeko tiralarari den Agurtzane Belokirenatzat izan zen. Afaria giro ederrean pasa eta gero, La jodedera taldearekin gozalderra arte izan zuten musika. HITZA

Biharko greba orokorrak jarraipen zabala izango duela aurreikusten dute sindikatuek

Manifestazioak Leitzan 18:00etan herriko plazatik, eta Tolosan 18:30ean Triangulotik izango dira

Eneritz Maiz

Azken asteetan sindikatuek lan asko egin dute greba orokorra egiteak duen garrantzia zabalteko. Lan horren guztiaren fruitua bihar ikusiko da enpresa eta kaleetan. Bihar izango da greba orokorra, eta sindikatuen arabera, erantzun ona izango du, bai Tolosaldean, eta bai Leitzan eta Areson ere.

Eskualdeko lantegi txikiak eta handiek atek itxiko dituzte: Zuhaizki, Tolosaldea Bus, Boinas Ellosegi, Frutas Urkola, Gara lantegia, Zu eta Biok, Calcosa, Tolosako kiroldegia eta TAO, Oria papelera, Jaure,...

Zizurkil, Leitza edota Irurako udaletxeek ere atek itxiko dituzte. Eta Hezkuntza ere behartuta daude zerbitzu minimoak ematera. Hala ere, ikastetxe batzuek atek itxiko dituzte: Anoetan, Alegian, Tolosan, Leitzan, Ibarrran, Amasa-Villabonan eta Zizurkil, besteak beste.

Kexu dira sindikatuek Eusko Jaurlaritzak ezartzen dituen zer-



Lan erreformaren aurka giza katea egin zuten. HITZA

bitzu minimoekin. Zerbitzu publikoen %30a betetzera behar-tzen dituzte. LAB sindikatuaren arabera: «Gasolindegia edo ospitaleetan zerbitzuen %30a betetzera behartuta daude, igandeetan bezala eskainiko dute zerbitzua, eta horrek greba baldintzatu egiten du».

Manifestazioetarako deia

Goizez, hiriburuetan egingo dituzten manifestazioetara joateko deia egin dute. Iruñean eta Donostian izango dira; lehen hiriburuan 12:00etan abiatuko dira Gatzelu plazatik, eta bigarregun, 12:30ean elkartuko dira Artozain Onetik, Boulevardean amaitze-

ko. Arratsaldean, Leitzan 18:00etan egingo dute manifestazioa herriko plazatik hasita, eta Tolosan, berriz, 18:30ean izango da Triangulotik.

Anoetan, herritar talde bat atzo arratsaldean elkartu zen herriko saltokietatik pasatu eta greba egiteak duen garrantziaz informazioa emateko.

TOPA plataformak ere bat egin du sindikatuek biharko deitu duten greba orokorrarekin. Eta zahartzaro duinaren aldeko plataformako kideek ere grebarako deia egin dute: «Gerontologiko zerbitzu publiko eta duinaren alde, murrizketarik ez. Goazen grebara».

Euskararen inguruko gogoeta sakona egiteko bigarren saioa, gaur

Leitzako udaletxe-ko batzar aretoan, 18:00etan izango da; gaur egungo egoera izanen dute aztergai

E. Maiz Leitza

Aurten, Leitza, Goizueta, Areso eta Aranon, euskararen inguruko gogoeta sakona egin ari dira. Gaur, asteazkena, Leitzan bigarren saioa egingen dute, 18:00etan, udaletxe-ko batzar aretoan.

Gaur egungo egoera izanen dute aztergai. Lan saioa edo bilkura irekia da, edonork parte har dezake, eta bi orduko iraupena izanen du. Herritar oro deituta dago, beraz, eta gonbidatuta, bilkura honetan parte hartzera.

Euskararen aldeko lanean, orain artean egin dena, gaur egungo egoera eta etorkizuneko erronkak aztertzen ari dira. Prozesua abiatuta dago, eta duela aste batzuk, egin zuten lehendabiziko saioa. Bertan, orain arteko balantzea osatu zuten.

◊ leitzaldea@hitza.info

Euskararen aldeko manifestaziorako deia

Larunbatean, 17:00etan, Baionan izango da manifestazioa 'Gure hizkuntzak, eskubide bat, lege bat' lelopean

E. Maiz

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak dei egiten die Tolosaldeko euskaltzaleei, Baionan hildaren 31n, larunbatean, *Gure hizkuntzak, eskubide bat, lege bat*

lelopekin egingo den manifestazioa joateko. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak eta Euskal Konfederazioak antolatuta du, eta euskaltzaleen deiar da modura irudikatu nahi da.

Frantziako Estatuan aitor-tzarik ez duten beste hizkuntzen aldeko mobilizazioak ere izanen dira Kemperen, Perpinyanen, Aiaccin, Tolosan eta Estrasburgon, eta babesa adierazi die herritar horietan ere hizkuntza gutxituen aldeko lanean ari diren guztiei.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Irura.** Atez ateko hondakin bilketaren inguruko mahai ingurua gaur, 19:00etan, ikastolan, Bilduko Imanol Azpiroz eta EAJko Karlos Ormazabalekin. HITZAK zuzenean emango du *tolosaldea.hitza.info* webgunean.
- **Leitza.** Euskararen inguruko solasaldia gaur, 18:00etan udaletxean. Euskararen erabilaren eta eronken inguruan hitz egingo dute.
- **Tolosa.** Gaur 19:15ean *Euskal Herria gaur eta bihar* mahaigurua, Leidorren. Xabier Aierdi, Martxelo Otamendi, Maite Iturre, Mariano Ferrer eta Paul Rios izango dira hizlariak, eta moderatzaile lanetan Jaime Otamendi ariko da. Tolosaldea Ikastn zerbitzuak antolatatu du saioa.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** *Gelede mask* erakusketa Topic zentroan, ekainaren 10a arte.
- **Tolosa.** *AurrezAurre* erakusketa apirilak 14a arte, Aranburu jauregian.

Irudia Tolosa



BIZILAGUNEN ELKARTASUNA, RODRIGUEZI

Tolosako Larramendi auzoko bizilagun talde batek igandean bikotekideak hildako Caridad Rodriguez Arrieta auzokidea du gogoan, eta bizi zeneko etxebizitzaren atarian oroigarria jarri du. Emakumeen kontrako biolentzia salatuta nahi izan dute, batetik, eta, bestetik, hil-

dako emakumeari eta bere senitarteko eta lagunei elkartasuna azaldu. Era berean, Tolosan eta Leitza, Trianguloan eta Lopeneko biribilgunean, hurrenez hurren, elkarretaratzeak egin zituzten atzo, Emakumeen Mundu Martxarako Plataformak deituta. r.c

Agurrak



Urte askoan!
Maddi Iturriotz Alkorta (Txarama).
Gaur 9 urte.
Muxu asko eta ondo pasa familiaren partetik!

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●●● **agurrak**

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.
 - **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.
- HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Zatoz bizilagun berriak ezagutzera.
SICOS ek 2012/03/22 an 19:00tan zabaltzen du.

Orduetara SICOS era. Adituak gara Apple markarekin erlazionaturiko gutxi, beraz, bere produktu eta osagarriak eskaintzeaz gain, etekina ateratzen lagunduko dizuten esagupenak ere baditugu. Inguratu zaitez gure denda berrira eta ezagutu ezazu Apple familia.

(SICOS)

Martxoak 22, 23 y 24n %10ren deskontua izango duzu zure Mac ordenagailua erostean.

(SICOS) San Martin 9, 20005 Donostia www.sicos.es Tlf: 943 441 279

© 2012 Apple Inc. Baita ere gutxi. "i" izen markaren erabilera gurekin erlazionaturiko produktuak erabiltzeko bakarrik. Apple, iPhone, iPad eta iTunes izenak Apple enpresaren erabileraren erantzukizunak dira.